



BARREN

TOKIKOM

Sasoiak ez du adinik



30 min
+10 te
gla

30+10 mintegia hizkuntza-kudeaketa enpresan

Antolatzaileak

Makina Erremintaren Institutua
Ahize-AEK
Laneki

LANBIDE HEZIKETA ETA ENPRESA: EUSKARAREN ERAGINA

Lanbide Heziketako Lantokiko
Prestakuntzan euskararen erabilera
sustatzeko 2 EKIMEN: LANPRES eta
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
LAGUNTZAK.

Jardunaldiaren edukia:

MINTEGIAREN SARRERA

HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
ELGOIBARKO UDALA

ENPRESA-PRAKTIKA ONAK

- ALDAHITZ ikerketaren EUSLE metodologian oinarrituta Fagor Arrasate eta JMAK garatutako esperientziak.
- Kokapen geografikoaren erabilerak eta abantailak organizazioentzat. *Gislan.*
- Nazioarteko negozioetako komunikazioa aztertzen. Bi kasu praktiko. *Elhuyar.*
- Enpresarean Foroa: Enpresentzako formazioa. *Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea.*
- Egin salto! hizkuntza portaeran eragiteko interbentzioa. *Emun.*
- Euskara Plus, langile eta lana bilatzen ari diren pertsonen euskarazko komunikazio gaitasunak hobetzeko proiektua. *Banaiz-Begara Elkartea.*

10.
EDIZIOA

IMH, Elgoibar

2015/10/7

8:45-14:00

10 URTEREN ONDOREN, ZER DUGU AURREAN?

Eragileen ahotan: Euskara enpresetan, zer
urta jaso dugu? Zer behar dugu orain
aurrera egiteko?

GIDARIA: Nerea Azurmendi kazetaria.

- Hizkuntza Politika Sailburuordetza.
- DANOBATGROUP.
- Kontseilua.
- Laneki.
- Gaindegia.
- IMH, Berrikuntzarako Tkgune Fabrikazio sarea.

Informazio gehiago: www.imh.eus

Izen-ematea (beharrezkoa):
www.imh.eus - imh@imh.eus
Telefona 943 74 41 32
IMH, Azkue auzoa 1 - Elgoibar



Olaso Industrialdea, Olasope 5

Elgoibar

943 743 344

www.antxustegi.com



ZERAMKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PAPERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK

Antxustegi

cerámicas

decorción

energías

OPTIA

Burdindegia handitu dugu.
1000 m² baino gehiago ditu orain.
Zatoz ezagutzera!





NEREA GURRUTXAGA

“Emakume talde ugari dabilta feminismoarako bidea zabaltzen herri latinoamerikarretan”

Kaixo, Nora! Zer moduz hasi duzu ikasturtea? Lasai, ez dizut ikasketen inguruan hitz egingo oraingoan. Aste honetan, Emakumeen Mundu Martxa iritsi da Euskal Herrira. Martxoaren 8an hasi zen Kurdistanen, eta duela egun batzuk iritsi zitzaigun Euskal Herrira karabana feminista. Asteburuan Bilbon izango den arren, asteartean, girotzen joateko, Norma Mogrovejoren *Origen del Abya yala-Una crítica al Heteropatriarcado* hitzaldian egon nintzen. Kolonizazio aurreko lur latinoamerikarri deritzo *Abya yala*. Konkistatzaileek eredu patriarkal eta heterozentristaren eraketan izan zuten garrantziaz hitz egin zigun Normak.

Teoria ezberdinak daude. Batzuek esaten dute *pueblos originarios* deituak direnak, parekideak zirela genero eta klase sozialari dagokionez, eta kolonizazioak sortu zituela arraza eta genero

banaketak. Beste batzuek diote bazegoela jada banaketa bat sexuen artean, baina ez zela agian horren hierarkikoa.

Dena dela, argi dago kolonoen pentsaerak eragin nabaria izan zuela herri horien kulturari. Horregatik esaten da, despatriarkalizatzeko, aurretik deskolonizatu beharra dagoela. Emakume talde ugari dabilta feminismoarako bidea zabaltzen herri latinoamerikarretan.

Nik errealitate hori ezagutzeko zortea izan nuen Txilen, eta orain Euskal Herrian dugu eurengandik ikasteko parada. Emakumeen Mundu Martxa aukera ezin hobea iruditzen zait beste herrialde batzuetako egoeraren eta mugimenduen berri izateko. Horregatik animatu nahi zaitut ekitaldi hauetan parte hartzera, igandean izango baita egun nagusia Bilbon. Hartu ditzagun kaileak, erakus dezagun munduko emakumeen indarra!



NORA KORTABARRIA

“Guztiok ohartzen gara kirolean gizonek eta emakumeek dituzten paper ezberdinez”

Aupa, Nerea! Egia esan kurtsu hasiera ezin hobea izaten ari naiz; beharbada hasi besterik egin ez delako, baina oraingo oso gustura. Zuk ere hasiera ona izango zenuela espero dut. Baina tira, joan nadin harira. Ikusten dudanez Emakumeen Mundu Martxara batu zara jadanik, eta ez hori bakarrik, *Origen del Abya yala-Una crítica al Heteropatriarcado* hitzaldiak asko erakutsi dizula dirudi. Horrez gain, Txileko egonaldian ere izugarri ikasiko zenuela iruditzen zait, eta hango egoera Euskal Herrian dugunarekin behin eta berriz alderatu duzula.

Nire kasuan, oraindik martxara fisikoki batu ez naizen arren, inguratuta bizi garen eredu patriarkalaren eraginaz gero eta gehiago jabetzen ari naiz. Aurten goi mailako kirol mundua gertutik bizitzea egokitu zait, eta errealitateaz ohartu nadin be-


giak ongi irekitzen ditudan bakoitzean, bihotzean ziztada txiki bat igartzen dut. Badakit ez naizela ari ezer berririk idazten eta agian asko emakumeak eta kirola gaiaz aspertu zaretela jadanik. Hala ere, ezin naiteke isildu.

Ohartu, guztiok ohartzen gara kirolean (beste gai askoren artean) gizonek eta emakumeek dituzten paper ezberdinez, eta ez naiz kirol ezberdinez hitz egiten ari.

Arazoa, horren aurrean normaltasunez jokatzeko dugula da, eta bien artean dagoen jauziaz, benetan, gertutik bizi dugun ohartzen gara. Horregatik, zuk luzatutako gonbidapena luzatzen dizuet nik beste guztiori. Ea Bilbon zuk, nik eta beste zozo zein beleelek elkar ikusten dugun. Batu gaitezten poliki-poliki Geure Mundu Martxara, errealitate feminista batez gozatu dezagun!

JESUS JIMENEZ

Ekonomialaria



Tulipanen ikasgaia

Hamazazpigarren mendean Hebehereak etengabeko hazkunde ekonomikoan murgildua zeuden, eta oparotasunean, gorengo klaseek aberastasun ikur berri bat aurkitu zuten: tulipanak. Garaiko lorategi elitista eta eleganteenetan zeuden, eta oso produktu desiratua bihurtu zen. Eskariaren hazkunde izugarria ikusita eta udako lorea denez, merkatariek gaur egungo eperako merkatuen antzerako bat asmatu zuten, erosleek tulipanak lo-

ratze garaiaren aurretik erosteko eskubidearen jabe egiteko aukera izan zezaten.

Poliki-poliki, merkatu berri honek inbertsiogile txikiei ere atek zabaldu zizkien, eta noski, hauek ere etekinak atera nahian, tulipanak loratu baino lehenago etekin mamitsu baten truke eskubideak salduta, loreen prezioa go-renera iritsi zen. Garaiko liburuek diote

“Gizakiok diru erraz eta azkarraren gosea DNAn txertatuta izango bagenu bezala, tulipanekin gertatutakoa askotan errepikatu da historian zehar”

1635. urtean berrogei tulipanen truke 100.000 florin ordaindu zituela norbaitek, artisaubaten urteko soldata 200 florin ingurukoa zenean. Baina 1637. urtean, prezioen zentzugabeheriaz ohartuta, inbertsiogile gehienak tulipanak saltzen hasi ziren eta prezioa hondoratu egin zen, historiako lehenengo burbuila espekulatiboa sortuz, milaka aurreztaile txiki harrapatuz.

Gizakiok diru erraz eta azkarraren gosea DNAn txertatuta izango bagenu bezala, tulipanekin gertatutakoa askotan errepikatu da historian zehar, 28ko crack delakoa, puntu com enpresa teknologikoen burbuila, edo gertuen daukaguna, higiezin edo etxebizitzena, adibidez. 400 urte ez dira nahikoa izan Hebehereetako noble eta artisauek erakutsi nahi ziguten ikasgaia barneratzeko eta jokabide berdinak errepikatzen jarraitu dugu. Agian, ohartu gabe, jadanik hurrengo burbuilari putz egiten hasiak gara.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren ArgitaletxeaKalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eusPublizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainara Argoitia **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalua Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar
bizitza-erakunde

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► OHARRA

Urriaren 16an ez da BARREnik egongo. Beraz, gogoratu aste horretarako informazioa astebetez aurreratzeari. Zorion-agurrak, agenda-kontuak eta bestelako informazioa bidaltzeko azken eguna: urriaren 7a.

► AMUARRAINAK HILDA

Joan zen asteartean, 11:00ak aldera, amuarrain ugari agertu ziren hilda San Lorentzo errekan, Ikastola ondoan. Auzokoez esaten dutenez, erreka ondoko enpresak isuritako likido pozoitsuak hil ditu, eta ez da hau gertatzen den lehenengo aldia. Kostata berreskuratu zituzten amuarrainak San Lorentzo errekan, orain ezerk axola ez dion enpresa baten erruz ordubeteaz erreka berriz husteko. Uste dut jendeak jakin behar duela gertatzen ari dena eta Udalak eta gai hauetan eskuduntza dutenek isuna edo dena delakoa jarri beharko lioketela errudunari. Eskerrik asko.

I.C.

► DEBABARRENAKO I. RAID-A

Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldearen izenean, eskerrik asko Debarrenako I. Raid-a antolatzen lagundu diguzuen guztioi:

Elgoibarko Udala, Kirol Patronatua, Udaltzaingoa, Udaleko brigadako langileak, Debegesa, Debemen, Dano-

bat, Alcorta eta bertako langileak, Mara-Mara, Iriondo Kirolak, Astigarraga, GoBike, Bizkor, Pitxintxu, Txarri-duna, Beristain, Mauxitxa gaztak, Ainhoa Fisioterapia, Itxaspe pitxiak, Jaxone inprenta, Eroski, Kaiku eta DYA.

Eskerrak ematen hasita, ezin ahaztu Saturixoko erreka jaitsiera posible egin dutenak eta batez ere, Debako espeleologia taldekoak. Proba berezia egiteko, zakuak utzi dizkiguten Kimetz elkarteko kideak. Sallobente eta San Rokeko bolatokietan hiru txirlo antolatu duten auzotarrak eta bolondresak, bereziki Aitzol Arriola, Aitor Olasolo, Ibai Gurrutxaga eta Jesus Arrieta. Atxolingo transiziora traste guztiak igotzen eta jaisten lagundu diguten Iñigo Loiola, Asier Lizarralde eta Ion Urbietta. Eten-gabe argazkiak ateratzen ibili den Julen Ansola. Proba ezberdinetan, parte hartzaileek igarotako lur sailen eta baserrien jabeak. Maalako atzerpean mahai eta aulkiak jarri eta bazkaria zerbitzen aritu diren Ibona Loiola, Jone Olaizola eta Maite Landaburu. Une oro lagundu diguten Anex Retana, Unai Garate, Aritz Larrañaga, Iñaki Lascurain, Eider Iriondo eta aipatu gabe geratu diren beste hainbat bolondres.

Bukatzeko, eskerrak parte hartzaile guztiei eta batez ere, Elgoibar eta Mendaroko bikoteei.

Datorren urtean ere saiatuko gara antzerako beste raid bat antolatzen eta

hobetu beharrekoak kontuan izaten. Hurrengo urtera arte!

Debarrenako I Raid-eko antolatzaileak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREnen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datarren eskutitz argitaratuko.



NAFARROA OINEZ 2015 - ELIZONDO

Urriak 18, igandea

Hamaborts, ama bat

- Autobusa antolatu dugu Nafarroako ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko.
- Irteera: 09:30 (Sigmako autobus-geltokia)
- Itzulera: 19:30
- Prezioa: 10 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 8)
- Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da.
- Aizken eguna: urriak 15.




Elgoibar etxe kaleratzerik gabeko herri izendatzeko Kaleratzeak Stop taldekoek aurkeztu mozioak ez du aurrera egin

Kaleratzeak Stop-en mozioa eguenean heldu zen Elgoibarko Udaleko osoko bilkurara, EHBilduren eskutik. Elgoibar etxe kaleratzerik gabeko herri izendatzea eskatzen zuen Kaleratzeak Stop mugimenduak. Hamar puntuko testua zen funtsean. Besteak beste, kaleratze guztiak gelditzeko "ahal duen guztia" egiteko eskatzen zion Udalari eta kaleratzeak egon diren kasuetan irtenbide bat bilatzeko etxerik gabe gelditu diren familientzat. Hasteko, kaleratze prozesu bat hasten denean finantza erakundeen eta kaltetuen artean bitartekari lanak egiteko esan zioten Udalari, eta baita kaleratze arriskuan daudenen berri emateko exijitzeko epaitegiei, kaleratze horiek saihesteko eta kolektibo ahulenak zein diren identifikatzeko. Era berean, herrian hutsik dauden etxebizitzin inbentarioa egiteko ere eskatu zioten Udalari, hutsik dauden etxe horiek, izan Udalarenak zein jabe pribatuenak, "fede oneko zordunen" erabilerarako gordetzeko. Mozioak, baina, ez du aurrera egin. EHBildukoek eta PSE-EEko zinegotziak bozkatu zuten alde. EAJk, berriz, mozio horren "ordezkoa" aurkeztu zuen, eta horrexek egin zuen aurrera. EHBilduko eta PSE-EEko zinegotziak abstenitu egin ziren bozketan.

Stock feria egingo du bihar Txankakuak, herriko merkataritza sustatzeko azoka



Stock feria antolatu du biharko Txankakuak, Elgoibarko Merkatarien Elkarteak. 10:00etatik 14:30ak bitartean egingo da, Lekueder parkean. Herriko 19 saltokik parte hartuko dute guztira azokan, eta 14:00etan 600 euroko saria zozketatuko dute Txankakuaren saltokietan erosketaren bat egin dutenen artean. Saria eskuratzeko, hori bai, txartel sarituaren jabeak Lekuederren egon beharko du zozketako unean.

Errefuxiatuak hartzeko hiri sarean parte hartuko du Elgoibarrek

Azkeneko bozeramaileen batzordean Udalean ordezkariak duten hiru alderdiek adostutakoa da osoko bilkuran bozkatu eta aho batez onartu zuten mozioa, PSE-EEk atzera bota baitzuen hasieran aurkeztu asmo zuena. Errefuxiatuek bizi duten egoera salatu eta egoera horri gizalegezko irtenbidea bilatzeko exijitzen zioten EBko herrialdeei. Era berean, Siria, Irak eta inguruko herrialdeetatik gerratik ihesi datozenak hartzeko prest agertu zen Udala.

Nafarroa Oinez jaira joateko autobusa Elgoibartik

Urriaren 18an ospatuko da Nafarroako ikastolen aldeko jaira, Elizondon, eta egun horretarako autobusa antolatu du Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzarekin. Autobusa 9:30ean irtengo da Elgoibartik (Sigmako autobus-geltokia) eta 19:30ean itzuliko da Elizondotik. Interesatuak Elgoibarko Izarrako bulegoan eman behar dute izena, urriaren 15erako. Autobuseko txartelak 10 euro balio ditu (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat, 8 euro).

Pintura eta eskulan ikastarook martxan dira Mendaron

Pintura eta eskulan tailerrak antolatu ditu Mendaroko Udalak. Urrian hasiko dira bi ikastarook eta ekainera arte iraungo dute. Pintura ikastarook astelehenetan izango dira, 18:30etik 20:00etara, eta eskulan tailerrak, berriz, martitzenetan, ordu berean. Urteko kuota 163 eurokoa izango da bata zein besterako (Ordainketa bi zatitan egingo da).

Eskularen erakustaldirako izena emateko epea, zabalik

Urriaren 31n egingo da Elgoibarren eskularen erakustaldia, Leku Eder plazan, 10:30etik 14:00ak bitartean, eta Udaletik jakinarazi dute zabalik da goela izena emateko epea. Izena emateko nahiz informazio gehiagorako: 943 742 158 edo kultura@elgoibar.eus (Elgoibarko Kultura Saila).

Mixel Etxekoparren kontzertua izango da gaur Sotoan, eta Xan Airek 'Euskara Iparraldean' izeneko hitzaldia eskainiko du hilaren 7an

Mixel Etxekopar (Gotaine-Iribarne, 1963) txirulari, kantari eta bertsolari zuberoarrak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 2, Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan. Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, Sinuose elkartearekin eta herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean antolatu duen *Haizea dator Iparraldetik!* zikloaren barruan izango da kontzertua. 23:00etan hasiko da kontzertua eta sarrerak Sotoan bertan jarriko dituzte salgai, hiru euroan.

'Euskara Iparraldean: egiak eta susmoak'

Eguaztenean, berriz, *Euskara Iparraldean: egiak eta susmoak* izeneko hitzaldia eskainiko du Xan Airek, Euskal Herriko Kazetan eta *Berrian* kazetari izandakoak. Gaur egun, Seaskako *Euskaraz Bizi* egitasmoko koordinatzailea da. Iparraldean euskarak eta euskaldunek bizi duten egoeraren berri emango du Airek, eta ondorengo galderei erantzungo die, besteak beste: Euskararen egoera benetan da kaxkarra Iparraldean? Zein dira datuak, eta dinamikak? Zertan, nola dabilta bertako euskaltzaleak? Nolako jarrera diogu gaiari Elgoibartik begiratuta?. Hitzaldia Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango da, 19:00etan.



Xan Aire

Aiastiako jaiak, giro ezin hobean



San Migel eguna ospatu zuten martitzenean Aiastia auzoan. Murkaikupe frontoiko zorua bustiegi zegoela-eta bertan behera laga behar izan zuten esku-pilotako finala, baina bestela, giro onean igaro zuten eguna. Auzotarrek elkarrekin bazkaldu zuten elkartean eta Elustondo anai-arreben trikiti-hotsek girotu zuten bazkalostea. Ospakizunak, hala ere, barixakuan hasi zituzten. Arraza libreko artzain txakurren Euskadiko Txapelketa jokatu zen zapatuan, eta Manuel Gorriti aizarnazabaldarraren *Nere* txakurra izan zen onena, 261 punturekin. Jose Antonio Arrillaga elgoibartarrak egin zuen bigarren *Txiki* txakurrekin (256 puntu lortu zituzten) eta Matxinbentako (Azpeitia) Pello Seguiolak hirugarren, *Argi* txakurarekin. Domeka goizaldean jokatu zen auzoko bolo txapelketan, berriz, Migel Mugertzak lortu zuen lehen saria (100 euro), lau txirlorakin. Angel Loiola eta Almorza sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan. Aiastiako igoeran, berriz, Igon Manzisidor izan zen azkarrena, 19 minutu eta 48 segunduko denborarekin. Guztira, 26 lagun lehiatu ziren.

Urriaren 16ra arteko epea dago Elgoibarko Udalaren egutegirako argazkiak aurkezteko

Elgoibarko kultura, artea eta ondarea izango da Elgoibarko Udalaren 2016ko egutegirako gaia, eta interesatuek urriaren 16a arteko epea dute lanak aurkezteko. Herritar bakoitzak gehienez sei argazki aurkeztu ahal izango ditu CD batean edo emailaz. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek parte hartu ahal izango dute. Argazkiak ezinbestean Elgoibarkoak izan beharko dira. Informazio gehiagorako: 943 744 366 / euskara@elgoibar.eus.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenak, Elgoibarren

Bihar jokatu da Elgoibarren Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetako saioa. Herriko Antzokian izango da saioa, 17:30ean, eta sei bertsolari lehiatuko dira: Manu Goiogana, Unai Muñoa, Oihana Iguaran, Iñigo Gorostarzu, Iban Urdangarin eta Manex Mujika. Sarrerak salgai daude www.berstosarrerak.eus helbidean (gaur 12:00ak arte). Hala ere, egunean bertan ere salduko dira Antzokian bertan.

Aubixa, alzheimerdunen aterpe

Alzheimerra eta beste zenbait demenzia dituztenentzat eta haien senideentzat erreferentziatzko gune bihurtuko da Aubixa aurrerantzean. 1990. urtean Eusko Jaurlaritzak Kultur Ondare izendatu zuenetik, barnetegia da Aubixa, euskal girotze barnetegia. Baina hori baino gehiago ere bada. Euren maila eta adinerako proposatutako eskola helburuak lortzen ez dituzten ikasleek nahiz gaitasun intelektual handikoek, afektibitate arazoak dituztenek, kalleko umeeek... ere badutelako lekua Aubixan. Zentro irekia da, eta orain alzheimerdun gaixoak, haien senideak eta gaitza ikertzen eta sozializatzen burubelarri lanean ari diren elkarte eta eragileak ere hartuko ditu. Maritxu Loiola Aubixako jabeak eta Koldo Aulestia AFAGIko presidentek eman dizkigute azalpenak.

- AINARA ARGOTIA -



Koldo Aulestia AFAGIko presidentea asteburuan Aubixan bildutako gaixo eta senitartekoei azalpenak ematen.

Etxean ikusi zuen Maritxu Loiolak alzheimerdun batekin bizitzea zein lotua eta gogorra den. Amama, ama eta sasoi bategan Aubixa baserrian (Aubixa) morroi izan zuten lagunak ere izan zuten, eta ondo gogoan dauka zein "gogorra eta triste" den burua galdu duenaren ondoan egotea, lagundu nahi eta nola asmatu ezin hori. Ezagutzen zuen AFAGI alzheimerdunen Gipuzkoako elkarteko presidentea Koldo Aulestia ere, eta halaxe, Aubixa etxea elkartaren eta gaitzarekin bizi zirenen beharretarako erabilteza proposatu zion, etxeak berak horretarako aukera ematen zuen heinean. Izan ere, Aubixa Jaurlaritzari lotua dago joan deneko 28 urtean hitzarmen baten bidez, eta astelehentik ostegunera, euskal girotze barnetegia da. Euskal Herri osoko taldeak etortzen dira, eta haiengan euskararekiko sentimendu positiboak sortzea da aterpetzeko arduradunen eginkizun nagusia. Urteak 365 egun ditu, baina, eta gainerako egunetan etxe horrek gizarteari beste zerbaitekin eskaini diezaikeela sinetsita zegoen Maritxu, eta sinatu zuen elkarlanerako hitzarmena AFAGIrekin. Duela urtebete inguru izan zen hori, eta geroztik, egin di-

tuzte saio batzuk probarako. Elkarlana "oso emankorra" dela nabarmendu du Maritxuk, eta gustura dira bi aldeak. Aubixak gaur arte zituen eginkizunei eusten die, baina alzheimerra eta adimengaitasunen moteltze edo galera itzulezina duten beste hainbat gaixoren eta haien senitartekoen kolektiboari ere zabalik egongo da 2016tik aurrera. Joan den asteburuan bertan etxea ezagutzeko aukera izan zuten AFAGIren bueltako lagunek. Alzheimerren Nazioarteko Egunaren bueltan (irailak 21) urtero antolatzen du Elkartasun Eguna AFAGIk, eta aurten Debabarrenean egitea tokatzen zitzaenez, "aukera polita" iruditu zaie Elgoibarrera etorri eta etxea ezagutzeko. Bertan elkartu ziren dozenaka gaixo eta senitarteko bazkaltzeko, eta "egun zoragarria" igaro zutela nabarmendu dute bai Koldo Aulestia AFAGIko presidentek eta baita Maritxu Loiola Aubixako jabeak ere. Itxaropentsu dira etorkizunari begira, eta ilusioz eta lanerako gogoz. "Ahaleginak merezi du. Gizarte sentisibileagoa, bihotz-zabalagoa, apalagoa eta humanoagoa lortzeko ahalegina beti delako interesgarria", dio Maritxuk.

“Alzheimerra sozializatu eta normalizatu nahi dugu; sentsibilizaziotik harago joan”

► **KOLDO AULESTIA** AFAGI-KO ETA CEAFA-KO PRESIDENTEA

AFAGI Alzheimerdunen Gipuzkoako elkarte eta CEAFA Alzheimer eta beste dementzia batzuek dituztenen senitartekoen Espainiako konfederazioko presidentea da Koldo Aulestia. Asteburuan Aubixan izan da AFAGI elkartearen bueltako beste dozenaka lagunekin batera, etxea eta inguruak erakusten. Alzheimerren Nazioarteko Egunaren harira urtero egin ohi dute bazkari bat, eta aurten Elgoibarren batu dira, elkarrekin Aubixan hasiko duten ibilbide berria aitzaki hartuta. Ilusioa nabari zaio.

◆ **Noiz eta nola sortu zen Aubixa zentroa eratzeko proiektua?**

Gutxi gorabehera urtebete izango da lanean hasi ginela. Maritxuren ekimez hasi zen dena. Aubixa baserriari gaur egun ematen zaion erabileratik aparte, gizarte alorrean zer beste erabilerara eman ziezaiokeen aztertzen hasi zen eta gurekin jarri zen harremanetan, Alzheimerren gaitza gertutik bizi izan duelako berak etxean, amarekin eta amonarekin, eta oso sentsibilizatu zegoelako gure gaiarekin –gure gaiarekin ere–. Luze aritu ginen hitz egiten gure elkartearen zereginaz, Alzheimerdunen familiei laguntzeaz, eta Aubixak eskaini zezakeenaz. Nolabait esatearren, Aubixa Alzheimerrekin bizi diren guztien etxea ere izatea nahi genuen. Horrek ez du esan nahi, jakina, Aubixak gaur duen aktibitatea bazter lagako duenik. Jaurritzarekin hitzarmena sinatuta dauka duela 28 bat urtetik, astelehenetik ostegunera bitartean aterpetxe modura funtzionatzeko, baina jai-egun askotan eta oporraldian libre dago, eta tarte horretan erabiliko dugu guk etxea gaixoei eta haien senitartekoei laguntzeko.



Arg.: Jabí Leon

♦ Zer da zehazki egin asmo duzuen?

Lau taletan egingo genuke lan guk: senitarteko laguntzaileekin, gaixotasunaren lehen fasean dauden gaixoekin, boluntarioekin eta beste elkarte edo erakunde batzuekin, haien arteko elkarrekin-tza sustatzeko. Familiartekoentzako bi-hiru eguneko egonaldiak antolatuko ditugu, kanpo ekintzak gaixoentzat, prestakuntza saiokak, eta aldi berean, senitartekoen ospakizunetarako ere erabiliko ditugu Aubixa.

♦ Badago inguruan Aubixakoaren antzerako esperientziarik?

Ez, ez dago. CEAFA alzheimerra eta beste demenzia batzuek dituztenen senitartekoen Espainiako konfederazioko presidentea ere banaiz, eta nik neuk ez dut beste halako esperientziarik ezagutzen. 303 elkarte gara Espainian, eta orain arte ez dugu burua halakoetarako izan. Bai gu eta baita instituzioetakoak ere gaixoentzako eguneko zentroak sortzen eta bultzatzen ari gara bereziki. Gure gaixoak zaintzen dituztenez ere kezkatu gara, jakina, baina Aubixa moduko zentroa erreferentea izango da Espainian. Hori bai, argi utzi nahiko nuke honekin ez dugula *ghetto* bat sortu nahi Aubixan; ez dugula alzheimerdunen egoitza bihurtuko alegia. Aubixa zentroa zabalik dago; denontzako dago lekua, eta hala behar du, gainera, Aubixaren premia askok dutelako. Hori bai, aurrera begira, Aubixa buelta horretan beste espazio batzuk sortzea dago gure buruan, beti ere etxea eta ingurua zainduz eta zementorik erabili gabe.

♦ Ikerketarako ere erabiliko duzue beraz zentro hau.

Bai, baina ikerketa klinikoa barik gizarte ikerketa izango da guk egingo duguna. Gaixoaren inguruan familiak eta gizarteak zer bizi duen aztertuko dugu, zuzendu edo hobetu beharrekoak identifikatzeko. Menpekotasun legearen bidez zer laguntza jasotzen duten, gaixoa batetik bestera erabiltzeko etxekoek zeintzuk aukera dituzten, bizi diren lekuko irisgarritasuna ona ote den... aztertzen dugu, eta zaintzaile profesionalak ere presta-

tzen ditugu, ondoren senitartekoei laguntzeko. Era berean, belaunaldien arteko topaketak ere antolatzen ditugu AFAGtik. Ikastolekin oraintsu hasi gara lanean. Donostian egin dugu saiotxo bat Santo Tomas lizeoko haurrekin. Elkartea ezagutzen egin dituzte bi-hiru egun eskolameek, eta tailerretan ditugun gaixoekin ere izan dira. Eta sinistuta gaude zeregin guzti horretarako aukera asko eskaintzen dizkigula Aubixak. Lekua bera zoragarria da. Naturarekin hartueman zuzen horretan hiri batean egin ezin daitezkeen gauza asko egin daitezke, behar dugun atseden giroan. Begira, psikosimulazioko tailerrak ditugu guk bai Donostian, Eibarren eta Irunen, eta urtero egiten dugu bazkari bat. Bada, bazkari hori Aubixan egin dugu aurten, ikusteko gure jendea nola sentitzen zen inguru hartan, eta garbi ikusi dugu haientzat beste mundu bat dela hori eta kalean egiten ez dutena egiteko aukera eskaintzen diela etxeak eta inguruak.

*“Gure asmoa
Aubixan indarra
hartzea da, gero
25 urte hauetan ikasi
duguna kaleratzen
asmatzeko”*

♦ Zein da zuen erronka nagusia?

Alzheimerra sozializatzea eta normalizatzea. Gure asmoa Aubixan indarra hartzea da, gero 25 urte hauetan ikasi duguna kaleratzen asmatzeko, denon artean elkarbizitza sustatzeko eta gizarte lagunkoiago bat lortzeko. Alzheimerraz ari garela, batzuetan ematen du denok gaudela sentsibilizatatuta, baina sarritan sentsibilizazioa penarekin eta errukiarekin lotzen dugu, eta guk harago joan nahi dugu. Guk normalizatu nahi dugu gaitza; ez die-

zagula jendeak errukiz begiratu. Egin dezala jendeak beste ariketa, gizartea aldatzeko.

♦ Urtebete daramazue elkarlanean, baina noiz hasiko zarete lanean?

Bai, mantso joan da kontua orain arte, ondo lotu beharra zegoelako dena: zer nahi genuen eta zer egin genezakeen. Orain, urte amaieran, egingo dugu AFAGIn 2016rako plangintza eta orduan egingo ditugu gure lehen erretsebak Aubixan, adostutako plangintza hori garatzeko.

♦ ‘Stop Alzheimerra 2020’ egitasmoa jarri duzue martxan Deban. Zertan datza?

Ekainean aurkeztu genuen programa. CITA Alzheimer fundazioarekin elkarlanean ari gara. Debako 60 urtez gorako biztanleak hartuko ditugu ikerketarako, 1.500 bat pertsona guztira, eta demenzia zenbatetan eta zein gradutan ematen den aztertuko dugu. Ikerketa kliniko hori CITA Alzheimerrek egingo du, eta gurea gehiago izango da gizarte ikerketa, ikustea lagun horiek zeintzuk gabezia dituzten, zer behar... Uste dugu Debako emaitzak estrapolagarriak izango direla gutxienez Euskal Herrira. Gerta daitekeelako Andaluzian, esate baterako, egoera beste bat izatea, laguntzetan-eta gure atzetik dabilzalako han, baina gure errealitatearen irudia egiteko behintzat balioko digu Debako honek.

♦ Batez bestekoa baino demenzia kasu gehiago daude Deban, ala?

Batek baino gehiagok galdetu dit hori, baina ez da hori, ez. Ezaugarri jakin batzuetako herria behar genuen. 60 urtez gorakoekin lan egin nahi genuen, baina kopurua kontrolatzeko modukoa izan behar zen. Ezin genuen hau Donostian egin, esaterako, lagin bat aukeratu beharko genukeelako lanerako. Udalarekin ere harremana bagenuen eta beste eragile aktibo batzuk ere gertukoak genituen, eta horek ere lagundu du Deban izatea. Proiektu honetan Mendaroko Ospitala ere zuzenezuzenean ari da parte hartzen.

“Beldurrak eta lotsak lotu ezean, beti erantzuten du gorputzak dantzarako”

► MARIE TOURE DANTZARIA

Ginea Konakrikoa da, eta oso ezaguna da dantza munduan. Munduko jaialdi garrantzitsuenetan egin du dantzan eta dantza afrikarren enbaxadorezat dute askok. Zumaian bizi da, baina hara eta hona dabil, dantzarako eskakizunei erantzunez. Euskal Herrian nahiz atzerrian ematen ditu eskolak, eta orain Mendaron ere bai (Eguenetan, 18:30ean, Azpilgoetako Kultur Etxean). Probatu nahi duenak hara agertu besterik ez du.

- AINARA ARGOITIA -



◆ Noiz ekin zenion dantza irakasteari?

Euskal Herrian 2008an ekin nion dantza eskolak emateari, Donostian eta Adunan. Jarraitzen dut bietan, baina orain beste herri askotan ere badihardut. Ginean ere ematen ditut eskolak, atzerriatik jende asko joaten delako hara nire bila. Gure herrian dantzari onak gehienak dira, baina jendeari dantzan erakusteko pazientzia dutenak gutxi. Balio egin behar da. Han nagoen denboran neuk ere hartzen ditut eskolak, dantza uneoro aldatzen delako. Gauza bat esango dizut: nik ez daukat herririk, ni mundukoa naiz eta deitzen didaten lekura joaten naiz dantzara.

◆ Bigarren eskola eguna izan duzu asteon Mendaron? Zer topatu duzu?

Sekula egon gabea nintzen hemen, eta etorri nintzenean eta taldekideak ezagutu nituenean, sekulako sorpresa atsegina hartu nuen. Dantzara datozen asko beldurrez etortzen dira, baina Mendaron ez dut halakorik ikusi. Nire herrialdekoen antz handia dute hemengo ikasleek. Bizi dute dantza, lotsarik ez dute, eta behar ere ez, eta gozatzeri datoz. Nik beti esaten dut dantzarako lurrarekin dugun harreman hori sentitu behar dela eta hemen

sentitzen dute. Denok daukagu gorputz bat, eta beldurrak eta lotsak lotu ezean, eta osasunak baimenduz gero, gorputzak beti erantzuten du. Oinarrizkoa irakasteko nago ni, baina eurek askatu behar dute gorputza, zuhaitzek hostoak bezala. Las-ter irtengo gara kalera erakustaldiren bat ematera.

◆ Zer ezaugarri ditu zure dantzak?

Gorputz mugimendua lantzen da gehien, gorputza sentitzea ezinbestekoa delako. Haserreak, pozak... denak askatu behar dira dantza afrikarrean, sentimenduen dantza delako. Fisikoa asko lantzen da, perkusioaren erritmora beti. Dundu-nak, yenbeak, tinbalak... zuzeneko musika gustatzen zait dantzarako.

◆ Afrikan ematen du denek dakitela dantzan. Beste kontu bat da hemen.

Kalean dago dantza han. Kalean beti dago musika. Garai batean dantza ikastea derrigorrezkoa ere izan zen, baina gaur egun ez. Hala ere, zaila da dantza sentitu gabe bizitzea. Nik hiru alaba izan ditut, eta haurdunaldietan ere

beti egin dut dantzan. Musika jarri eta bat, hasten zitzaidan sabel barrukoa ere dantzan. Ginean, entsegatzen ari garela ere, beti ditugu adinekoak eta gazteak begira. Hango bizimoduaren parte da. Nik neuk beti ikusi dut hori. 10 bat urte nituela hasi nintzen herrian nabarmen-tzen, kalean dantza egiteagatik dirua irabazten, eta aitak dantza eskolara eram-n ninduten.

◆ Zer eman dizu dantzak?

Pertsona gisa hazteko aukera. Ez dut beste ikasketarik, baina mundu osoan barrena ibili naiz. Ofa Susu dauka izena gure Gineako taldeak eta mundu osotik etortzen zaizkigu jaialdi handietan parte hartzeko eskaintzak.

◆ Zer diozu gure kulturaz?

Zuena eta gurea oso-osoa ezberdinak direla, baina zuena ere ari dela zabal-tzen, aberasten. Mundu txiki bat bizi da hemen ere gaur, mila herrialdetako jen-dea, eta hori aberasgarria da, besteen-gana zabaltzeko ezinbestekoa den neurri berean.

ERROSARIO KALEKO JAIK

Urriaren 7an, eguaztenean, Errosarioko amabirjinaren eguna da, eta izen bereko kalean goiz hasiko dituzte ospakizunak. Barixakuan amabirjinari lore eskaintza egin, asteburuan jai giroan murgildu eta amabirjinaren egunera bitartean horrela ibiliko dira kaleko bizilagunak eta gerturatzen direnak.

Jolas, jatorduez –afaria, txokolatada eta mokadua– gain, musika –Mauixtxa txaranga–, dantza eta kirolak ere ez da faltako Errosario kalean. Orain dela urte batzuk berreskuratu zuten Errosarioko amabirjinaren Ezpata-dantza eskainiko dute Haritzeko dantzariak zapatuan. Egun berean herri-kirol erakustaldian, Mugertza anaiak aizkoran arituko dira eta Karmele Gisasola txingak eramaten eta ingudea altxatzen. Errosarioko bizilagunek, beraz, gainerako elgoibartarrak ere gonbidatu nahi dituzte beren kaleko jaietan ondo pasatzera.

2, BARIXAKUA

13:00 Lore eskaintza amabirjinaren aurrean eta txupinazoa.

17:00 Kiribil, Kalebarren plazan.

18:00-19:00 Ludoteka.

19:30 Igel-jokoa, txaranga eta buruhandiak.

21:00 Afaria, Gabi jatetxean.

3, ZAPATUA

11:30 Meza.

Jarraian, Errosarioko amaren ezpata-dantza.

13:00 Herri kirolak. Mutrikuko herri-kirol taldea. Kalebarren plazan.

5, ASTELEHENA

17:30 Txokolatada. Baltasar elkartean.

6, MARTITZENA

17:30 Zezenxoak eta pottokak.

7, EGUAZTENA

Amabirjinaren Eguna

19:00 Meza Errosario kaleko hildakoen omenez.

Ondoren, salbea.

Jarraian, mokadua Errosario kalean.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

DIN BERRI

Zentru Podolojikoak
Asier Arzamendi Mujika
Kolejiatu Zkia. 133

Errosario kalea, 25 (Etxarte)
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

943 741 795
653 184 886

Maria Urizar

Ileapaindegia

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
maria.urizar@hotmail.com

Errosario, 16 - 18
943 743 268
Elgoibar

CASA ASTIGARRAGA
GYS SPORT

HAZTEN

2 urtetik 14 urte
arteko ume eta
gazteboentzako
arropa

Errosario kalea, 30 - Tel.: 943 747 347

CASTRILLEJO
tabakoa / lotoa / loteria / kiniela

Errosario, 3
Tel.: 943 741 638
errokas@gmail.com

ESTUDIOS ARRILLAGA

Errosario, 15 - ELGOIBAR- 943 744 055
Arragueta, 12 - EIBAR - 943 200 698



ETXEBIZITZETARAKO ETA LOKAL KOMERTZIALETARAKO PROIEKTUAK
ETA BERRIKUNTZA-LANAK



Garazi Sampedro
Arando

965 (COEG) elkargokide ztda.
RPS 169/15

ERROSARIO
HAGIN KLINIKA

Errosario, 7

943 743 679

errosario7@gmail.com

HARATEGIA-URDATEGIA



ZIARDA



BASERRIKO KALITATEA

Errosario kalea, 10 - Tel.: 943 740 554 - Elgoibar

faddek

Errosario, 31
943 742 692



Cristina Garcia
Estetika eta Terapia Naturalak

Ondo Pasa
JAIXETAN!!!

943 74 29 50
cgestetika@gmail.com

Errosario kalea 19
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO



Zerbitzu bakoitzean, toaila eta erabili eta botatzeko
bizar-xafiak ere sartzen dira, higiearen
gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar bukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL
tratamenduak, gizezkoentzako zein emakumezkoentzako



Ondo pasa jaietan!

Kontsultatu hemen ordutegiak: www.peluqueriajoseantonio.com

'60+': Urte askoan eta ondo bizitzeko beste pauso bat

60 urtetik gorako herritarren artean jarduera fisikoa sustatzeko asmoz, egitasmo bat jarri zuen martxan Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak 2011n. Ongizate Sailarekin batera apirilean pauso berriak eman zituen, eta irailean eta urrian, Mintxeta inguruan jarraituko du 60+ programak martitzen eta eguen goizetan. Bizimodu aktibo eta osasungarria eraikitzen erakustez gain, aurten izan da berrikuntzarik, alderdi fisikoa lantzeaz gain, alderdi mentala eta soziala ere landu baitute. Horretarako Unai Arrieta psikologo eta orain dela gutxira arte eskubaloi jokalaria profesional izan den elgoibartarra dute gidari.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Unai Arrieta psikologo eta kirolariarekin egiten dituzte ibilaldiak eta ariketa fisikoak 60 urtez gorakoek, eta hark ematen dizkie hitzaldiak ere.

A dinean aurrera joan ahala moteldu egiten dela uste du gehiengoak, baina iritzi hori hutsean utzi dezakeen egitasmo bat bada Elgoibarren: 60+. Badira urte batzuk 60 urtetik gorako elgoibartarrak martxan jarri zirena, eta gaur egun, astean birritan batez beste 40 lagun elkartzen dira Mintxetan ariketa fisikoa egiteko, baita alderdi intelektual eta emozionala lantzeko ere. Gehiengoa 70 urtetik beherakoa da, baina bada 80korik ere. Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eta Udal Kirol Patronatuak hasi zuen egitasmoa, eta orain, Unai Arrieta psikologo eta kirolaria da arduraduna. "Mintxetara datorrenari oinez ibiltzea gustatzen zaio, herriko ekintzetan hartzen du parte, jende aktiboa eta autonomoa da, osasunez ondo dagoena eta topera bizitzen segi nahi duena", dio Arrietak.

Mintxeta kanpoaldean 60 urtetik gorakoentzat jarri zituzten kirola egiteko makinak. Haiek nola erabili ikasten hasi eta tal-

dea indartu egin zen. Beraz, Unai Arrietarengana jo zuten. Karrera bukaerako lana eta beste hainbat ikasketa zahartze aktiboari buruz eginak ditu. "Karreraren ezagutu nuen gai hau. Gerontologia ikasgaiko irakaslea oso ona zen, eta zahartzeari buruzko ikuspegi oso positiboa eman zigun. Azaldu zigun zahartzea bizitzeko prozesu eta adin batetik aurrerako gauza soil bezala, eta hor denok sartzen gara". Arrietaren ustez, zahartze aktiboarena azken 10-15 urteko kontua da. "Paradigma bat da aztertzen duena zer egin dezakegun gure bizitzan urte askoan eta ondo bizitzeko".

ARIKETA FISIKOA ETA INTELEKTUALA

Maila profesionalean aritu da Unai Arrieta eskubaloian eta lehiaketa kirola egin arren, ariketa fisikoaz asko ikasi duela esan digu eta hori dela zahartze aktiboaren oinarritzko zutabe bat. Parte-hartzaileentzat propio prestatzen ditu ariketak Unai. "Adi-

“Gu zahartzen

gara eta gure

osasuna aldatzea

gure esku dago.

Gure bizitza

estiloaren

araberakoa da”

nean aurrera goazela egon daitezkeen galerak orekatzeko eta indartzeko ariketa fisikoak egiteaz gain, asko ibiltzen gara oinez. Bultzatzen dut berriek egunerokoan, modu autonomoan bizitza estilo aktiboa izatea, mugitzea, oinez ibiltzea, etxetik irtetea. Ariketak sinpleak izanik, beren kabuz egiteko gai izatea”.

Egitasmoak helburu hezitzailea ere badu. Besteak beste alderdi intelektuala edo kognitiboa mantentzeko egin dezaketenaz aritzen dira. “Memoria dela-eta, beti egoten da kezka adin batetik aurrera gauzak ahaztuko ote zaizkigun-edo. Beraz, hitzaldi partehartzaileak egiten ditugu”. Adinean aurrera joan arren ondo sentitzeko, topera bizitzeko, egin daitekeena ikustea da sistema. Osasuna sustatzeari eta ariketa fisikoa bul-tzatzeari ongizate psikikoa gehitzea ona dela uste du Arrietak. “Ondo sentitzen badira, gehiago ibili eta jokabide osasuntsuak izango dituzte”.

HELBURUAK MANTENDU

Orain taldean ari den jendea kontzientziatuta dago, baina askotan, arazoa, denboran mantentzea da Unai Arrietaren ustez, eta dio psikologoak, hein batean, horregatik sartu direla gaian, jendea motibatuzko. “Urtarrilaren 1ean denok izaten ditugu helburu handiak: erretzeari uztea, ondo jaten hastea, ki-roldegira joatea... Eta hilabetera utzi egiten dugu hasitakoa. Helburuak mantentzea da benetan zaila, eta nire ekarpenak alderdi hortatik egiten ditut”.

Jendea denboran aurrera doa eta baita programa ere. “Populazioan gero eta gehiago dira 60-65 urtetik gorakoak eta hemendik urte batzutura heren bat izango dira. Gazte eta helduentzako badaude ekintzak, baina adin honetako jendearentzat apenas eskaintzen da zerbitzurik. Nik uste dut programa hau bide hortatik sortu zela eta asmatu dela”, esan digu Unai Arrietak. Berak egitasmoan transmititzen duen ideiahau da: “Gu zahartzen gara eta gure osasuna aldatzea gure esku dago. Gure bizitza estiloaren araberakoa da. Hortaz kon-turatzen den pertsonak kontrola hartzen du, eta gero jokabide horiek aurrera eramatea ez da erraza, baina posible bada”.

Hori da ariketa eta hitzaldien bidez erakusten diena eta partaideen artean aldaketa sumatu duela esan digu. “Inoiz ez da berandu” da azpimarratzen dien beste ideia bat. “Pertsonok gaitasuna daukagu ikasteko eta jokabideak aldatzeko hiltzen garen arte. Hori esango nioke edozein pertsonari horrelako programa batean parte hartzera animatzeko”.

Berriak animatuko litzuke, bai, baina orain ari direnak ere jarraitzeko gogoz sumatu ditu. Gainera, Unai nabarmendu du asko ikasi duela ikasleengandik. “Izugarrria da ikustea adinean aurrera egin arren, ariketa fisikoak edo ekintza sozialak egin eta hobeto sentitzen direla. Horrek ni ere bete nau”.

Urteek baino atsekabeek zahartzen dute gehiago. Beraz, 60+ atsekabe horiek ahaztu eta urtetan aurrera pozik eta gogotsu joateko bidea izaten jarraitzea litzateke asmoa eta nahia.

Elias Larrañaga, 66 urte



Aurrejubilatuz zenean, Argiñe Gabilondorekin hasi zen egitasmoan eta hasieran gizonezko bakarra bazen ere, animatu eta urtero jarraitu du. “Orain koadrila polita gaude, giroa ere halakoa da eta gauza berriak ikasten ditugu”. Hiru arlo lantzen dituzte: oreka, psikomotritzitatea eta in-

darra, eta horretarako egiten dituzten ariketetatik gimnasia da gehien gustatzen zaiona, “ibiltzen denok baitakigu”.

Jubilatu arren beti hartu du parte hainbat ekintzatan Elias Larrañagak. “KZgunean aritu nintzen, Esperientzia Eskolan izena emateko asmoa ere izan nuen, baina koadrilakoekin irtetea ere gustatzen zait eta hori ere ez nuen utzi nahi. Baina honako hau beste irtenbide bat da, eta oso gustura nago”.

60+-en ikasitakoak etxean ere egiten ditu Eliasek. “Indarra eta beste hainbat arlo lantzeko eta ariketa interesgarriak proposatzen dizkigu irakasleak, eta nire kabuz, eginaren bidez, sumatu dut hobekuntza”.

Maite Unzueta, 63 urte



Kalean izan zuen egitasmoaren berri eta Unai Arrietarekin hasi zen opor aurretik. “Gutxi batzuk hasi ginen, eta pixkanaka handituz joan zen taldea. Oso pozik gabiltza, izan ere, Unai oso alai eta jatorra da”.

Egiten dituzten gauza guztiak ditu gogoko. “Gimnasia egiten dugu, oreka eta indarra landu eta batzuetan bilerak izaten ditugu. Unai azaltzen dizkigu gure adineko jendearekin zerikusia duten gaiak, beti modu positiboan”.

60+ saioetan egindako ariketak beren kabuz ere egitea da asmoa, baina Maitek dio ez dela erraza. “Saioetara joanez gero, ezinbestean egin behar dira, baina etxean ez. Hala ere, ibili, asko ibiltzen naiz mendian”.

Arituan, besteak beste, orekan asko irabazi duela uste du Maite Unzuetak. Horrez gain, lagun giroa ere eman dio 60+ egitasmoak. Ariketa hitzaldiak ez ezik, elkarrekin ibilaldi bat eta bazkaria ere egin baituzten sari modura.

Iñigo Lariz da Mendiko Eskiko Euskal Selektzioaren hautatzaile berria


Mendiko Eskiko Euskal Selektzioak badu hautatzaile berria 2015-2016 denboraldirako: Iñigo Lariz. Azken lau urteotan Euskal Selektzioa kide izanik, ezagutzen du aurreko hautatzaile Aitor Muruak egindako lana eta ildo beretik jarraitzea da bere asmoa. Taldelanean arituko da, eta horretarako Aitor Igerategi eskiatzailea izango du ondoan laguntzen. Lekukoa hartzeak "errespetua" eman diola dio Larizek, hala ere, ardurak ardura, lehiatzen ere jarraituko du Euskal Selektzioarekin.

Kadete, jubenil eta senior mailako eskiatzaileekin Euskadiko zein Espainiako Kopetako lasterketa nagusienetan lehiatzea da selektzioaren helburu nagusia. Larizen ardura izango da probetara joateko logistika. Bidaiak, izen-emateak... antolatu eta koordinatzea. Lehian ere arituko denez eta selektzioa gainerakoen proba beretan parte hartuko duenez, taldelanean gauzak erraztuko dituela uste du.

Eskiatzaileen hautaketan ez da gora-beherarik egongo eta guztira zazpi kidek osatuko dute Mendiko Eskiko Euskal Selektzioa. Iñigo Larizen esanetan, Euskal Herrian dauden mugak kontuan hartuta eskiatzaileetan oso maila ona dago. "Eskiatzeko ezinbestean beste nonbaitera joan behar izaten gara, hemen oso gutxitan egoten baita eskiatzeko adina elur, eta hori kontuan izanda, oso maila ona daukagula esango nuke, batez ere gazte eta kadeteetan. Seniorretan, berriz, ezin gara ahaztu Nahia Quincoces lekeitiarraren mailaz. Euskal Herrian lehiatzen ari garenon emaitzek erakusten dute hori".

Gazteak prestatu

Logistikaz ez ezik gazteen teknifikazioaz ere arduratuko da Lariz. "Etorkizuna beraiek dira eta pixkanaka komeni zaie kirol honek dauzkan zehaztasunak eta alderdi teknikoak lantzea, mailaz maila aurrera joateko".



Besteez arduratu bai, baina Larizek beretzat ere badiu asmoak denboraldi honetarako. "Euskadiko txapelketan lehiatuko naiz eta Espainiako txapelketan igoreretan ahalik eta emaitza onenak lortzea da nire asmoa. Baina oso-oso zaila da postu on bat lortzea, gero eta maila altuagoa dago eta".

Jokin Muñozek bigarren egin du bere mailan distantzia luzeko Madrid KM 0 triatloian



Distantzia luzeko triatloia jokatu zen joan den asteburuan Madrilén; *Madrid Km 0*. Proba hori zuen aurtengo denboraldiko helburua Jokin Muñoz triatleta mendarorak, eta gainditu ez ezik, podiumera ere igo da. 25 eta 29 urte artekoetan bigarren postua eskuratu du.

3,8 kilometroko igeriketa proba Riosequilloko urtegian (Buitrago de Lozoya) egin zuen orubete, 20 minutu eta 14 segunduan. Bizikletaz 180 kilometro egin zituen Madrilgo mendilerroan berrera eta Canencia, Morcuera, Cotos eta Navacerrada mendateak igo zituen. Horretarako 6 ordu, 19 minutu eta 49 segundu behar izan zituen. Azkenik, korrika, maratoiko distantzia (42 km) 3

ordu, 14 minutu eta 41 segunduko denboran egin eta helmuga, Madrilgo 0 kilometroa, 10 ordu 57 minutu eta 45 segunduan zapaldu zuen.

Gogorra

Madrilgo triatloian parte hartzea esperientzia polita izan da Jokin Muñozentzat. Iaz Bartzelonan egin zuen distantzia bereko triatloia eta Madrilén bizikletako proba "gogorra" iruditu zaion arren, egindakoarekin "gustura" dagoela esan du. Madrilgoaz gain, Bilbon, Zarautzen eta Valladoliden egin ditu denboraldi honetan beste triatloiak eta bere helburua beteta, aurtengoz atsedean hartuko duela jakinarazi du.

Arkaitz Irureta eta Joseba Elustondo hirugarren Debabarreneko raidean

Debabarreneko lehen raida jokatu zuten Elgoibarren joan zen asteburuan 37 bikotek. Parte-hartzaileen artean zeuden Elgoibarko Arkaitz Irureta, Joseba Elustondo, Ander Zabala, Josu Idiakez, Anton Mendizabal, Gorka Garaizabal, Iñaki Ansola, Beñat Bollar eta Jose Antonio Ruiz eta Mendaroko Javier Fernandez eta Jurdan Ezenarro.

Saillkapen nagusian Aitor Otamendi oñatiarrak eta Gaizka Agirre artearrak irabazi zuten eta hirugarren izan ziren Arkaitz Irureta eta Joseba Elustondo elgoibartarrak. Emakumezkoetan Ainhoa del Campo eta Silvia Irastorza sopelarrak gailendu ziren, eta mistoetan, Beñat Doyharzabal eta Maitane Garmendia.

Partaideek hainbat kirol-proba egin zituzten. Nagusiki oinez edo mendiko bizikletaz. Antolatzaileen esanetan, mendi bizikleta proba gogorra izan zen, eta are gogorragoa galduta ibili eta beste bide batzuetatik ibili zirenentzat. Proba berezietan, besteak beste, Saturixo errekan arroila-jaietsiera egin zuten eta elgoibartar batzuk harrিতuta utzi zituen horrelako erreka hain gertu dagoela jakiteak. Bolo jaurtiketan ere aritu



ziren Sallobenten gehienak. Antolatzaileak gustura daude lehen esperientzia honekin, eta lan handia izan den arren, bigarrena antolatzeko gogoz daude.

Umeen areto futbol partidak zapatuan

CD Elgoibarrek areto futbol partidak antolatu ditu zapatarako, urriaren 3rako. 2004, 2005, 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoentzat izango dira partidak eta parte hartzeko ez dago CD Elgoibarren izena emanda egon beharrik. 10:00etan hasiko dira partidak, Aita Agirre plazan, eta antolatzaileek jokatzera eta ikustera animatzen dituzte elgoibartarrak.

Eskalada ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, udaberrian eta udan egindako eskalada ikastaroekin jarraituz, berriz eskainiko ditu haur eta helduentzako ikastaroak urritik aurrera. Taldeak osatuko dituzte hainbat mailatan eta astean bi saio izango dira: astelehenean eta asteazkenetan, arratsaldean. Parte hartu nahi dutenek Olaizaga kiroldegiko harreran eman behar dute izena.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 1 – Tolosa 3
Mutriku 2 – Elgoibar 0 (Erregionala)
Amaikak bat 1 – Elgoibar 0 (Jubenilak)
Elgoibar 2 – Amaikak bat 1 (A Kadeteak)
Elgoibar 5 - Anaitasuna 0 (B Kadeteak)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 2 - A. D. San Juan 6 (Naz. B)

ESKUBALOIA

Lauko Elgoibar 24 – San Adrian 20 (Sen. nes.)
Alcorta 21 – Beti Onak 27 (Sen. mutilak)
Tecnifuelle Elg 19 - Kukullaga 25 (Jub. nes.)
Pneumax Elg 17 - Kukullaga 19 (Kad. nes.)

PALA

Irailak 24
Bitxori-lon 13 - Nerea-Buru 22
Ana-Xabi 14 - Ainhoa-loritz 22
Enara-Asier 22 - Inma-lon 17
Ana-lbai 22 - Sonia-lñigo 18

Irailak 28

Patricia-Imanol 20 – Amaia-Josu 22
Kasta-Marta 7 - Olatz-Igor 22
Ana-Xabi 22 - Sonia-lñigo 18
Ibai-Ana 12 - Lara-Julen 22

Irailak 30

Ainhoa-lon 13 – Enara-Asier 22
Sonia-lñigo 22– Nahia-Javi 17
Bitxori-lon 9 - Patricia-Imanol 22

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 3
12:00 Elgoibar – Arrasate (Infantil txikiak)
16:30 Elgoibar – Burumendi (Oho. Jubenilak)
Domekia, 4
16:30 Elgoibar- Zarautz (Erregionala)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 3
10:00 Bankoa - Bergara (Kadete Mutilak)
11:30 Deca - Bidasoa B (Kadete Mutilak)
16:30 Berstein - Amenabar Zarautz (Jub. Mut.)
18:00 Gabaz - Eibarko Haritza (Sen. Mut.)

PALA

Astelehena, 5
Olatz-Igor - Ibai-Ana
Bitxori-lon - Jone-Aitor
Amets-Hasier - Nahia-Javi
Enara-Asier - Inma-lon

Eguaztena, 7

Kasta-Marta - Ibai-Ana
Jone-Aitor – Patricia-Imanol
Ainhoa-loritz - Sonia-lñigo
Inma-lon – Amaia-Josu

Eguena, 8

Lara-Julen - Ainhoa-loritz
Amets-Hasier – Kasta-Marta
Nerea-Buru – Ainhoa-lon
Inma-lon – Idoia-Joseba

LANA.....**Eskaerak**

Etxeak, tabernak nahiz elkarteak garbitzen egingo nuke lan. Esperientzia daukat, eta autoa ere bai.

☎ 635 354 776

Etxeak zein portalak garbitzen edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interna moduan jarduteko prest.

☎ 632 175 172

Umeak edo behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prest. Eskolako etxeko lanak egiten laguntzeko prest. Euskalduna naiz.

☎ 688 639 371

Sukaldari laguntzaile izateko edo garbiketari lanetarako prest.

☎ 636 882 838

Sukaldari edo zaintza lanetarako prest nago.

☎ 688 682 398

Adinekoak zaintzeko edo margotze eta muntaiari lanetarako prest.

☎ 640 209 948

Adinekoak zaintzeko edo garbiketari lanak egiteko prest.

☎ 632 564 679

Adinekoak zaintzeko edo margotzen zein parketa jartzen lan egiteko prest.

☎ 632 687 874

Garbiketari lanetan edo adinekoak zaintzen orduka lan egiteko prest. Interna edo asteburuetan ez.

☎ 690 134 485/943 740 672

Garbitasun lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. Esperientziarekin.

☎ 631 834 632 (Ana Maria)

Adineko pertsonak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bizita, kanpoan edo gauzez. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 631 506 763

Ospitalean zaintza lanak egingo nituzke asteburuetan edo astean zehar, gauzez.

☎ 642 636 525

Etxean bizita edo orduka etxeko garbiketari lanak egingo nituzke. Nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia daukat. Ospitalean zaintza lanak ere egingo nituzke.

☎ 642 381 844

Pertsona arduratsua umeak zaintzeko prest. Erreferentziak daukat.

☎ 630 410 294

Gauzez, zaintza lanak egingo nituzke, etxean zein ospitalean. Gidabaimena daukat.

☎ 631 343 232

Baserriko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat.

☎ 632 687 874

Eskaintzak

Pertsona euskalduna behar dugu Mendaroko baserri baterako. Autoduna

☎ 688 649 596

Hoteleko harreran lan egiteko pertsona behar da. Beharrezko da: euskara eta ingeleza jakitea. Kontuan hartuko da hoteleko harreran esperientzia izatea eta frantsesa jakitea. Bidali curriculum: deba@aisiahoteles.com helbidera.

Enpresa mailako ingeles irakaslea behar dut.

☎ 688 639 371

Pertsona bat behar dugu LH3ko 3 umeri frantses eskolak emateko.

☎ 620 578 702

LH5 eta DBH4rako klase partikularrak etxean emateko pertsona behar da.

☎ 617 386 198

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Alokairuan bizitzeko bi logelako etxe bila Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordaintzeko prest.

☎ 632 198 561

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Hilean 450-500 euroraino ordaintzeko prest.

☎ 661 064 027

Elgoibarko bikote nagusi batek etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren bertan, erdigunean. Igogailudun etxea izan behar da.

☎ 669 339 529

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan.

☎ 632 175 172

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu.

☎ 637 207 806

GARAJEAK.....**Alokairua**

Garaje itxi bat emango nuke alokairuan Elgoibarren, Leku-Ederren.

☎ 688 687 820

Garaje itxia hartuko nuke Bernardo Ezenarron, Pedro Migel Urruzunon edo Maala inguruan.

☎ 636 275 639

Salmenta

Garaje itxia salgai Santa Klara kalean. 22 metro koadro dauzka.

☎ 943 742 895

OSPAKIZUNAK

1975. urtean jaiotakoan bazkaria egingo dugu urriaren 17an Belaustegin. Joan nahi dutenek 60 euro sartu beharko dituzte urriaren 13a baino lehen Euskadiko kutxako (Caja Laboral) kontu korronte zenbaki honetan: ES89 3035 0007 27 0070031823. Egunean bertan autobusa izango da 14:30ean Txankakua zubian Belaustegira joateko.

Mendaron 1955. urtean jaiotakoan kinto bazkaria egingo dute urriaren 18an Landa jatetxean. Interesatuak 55 euro sartu beharko dituzte urriaren 14a baino lehen Kutxabaneko kontu honetan: 2095 5054 00 911 536 1255. 13:00ean Mendarozabal plazan bilduko dira eta bazkaria 14:30ean izango da. Oharra: diru sarrera egiteko orduan eraman kontu zenbakia banketxera.

BESTELAKOAK.....

Lokal bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren biltegi modura erabiltzeko. Hilean 100 euro inguru ordaintzeko prest.

☎ 629 425 632

Entrenatzailea behar dugu Mendaroko pilota eskolarako. Astearte eta ostegunetan izaten dira eskolak, 17:00etatik 18:00etara.

☎ 688 649 596

Trama markako sehaska salgai.

☎ 665 717 098



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar

☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure bizilagunen elkartean igogailuaren mantentze-lanetarako kontratua sinatuta daukagu eta hainbat urtean automatikoki luzatu da kontratua. Bizilagunen bileran presidentek esan dutenez, mantenu lanetarako enpresak sekula ez die aurrez jakinarazi kontratuaren epemuga. Bertan behera utzi dezakegu oraingo mantenu kontratua?

Hainbat kontratutan badira klausulak legeari dagokionez zalantzazkoak edo gehiegizkoak direnak. Zenbait mantenu-enpresak, bizilagunen elkarteei, 10 edo 15 urteko epemugadun kontratuak inposatzen dizkiete. Urte horietan konpetentziako enpresek eskaintzen dituztenak baino askoz ere prezio altuagoak kontratzen dituzte.

Kontratuaren edukia negoziatu beharrean, alde batek idatzi eta inolako baldintzarik gabe bizilagunen elkarteari inposatzen badio, iraupenari dagokion klausula baliogabetu daiteke kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak urratzen dituelako.

Askotan, bizilagunen elkarteek kontratua konpondu nahi badu, enpresek derrigortzen dituzte, kontratua aldez aurretik bertan behera uzteagatik, kaldeak ordaintzera. Beraz, auzitegian erabaki beharko da klausulak gehiegizkoak diren ala ez eta bizilagunen elkarteak kalte-ordaina eman beharko duen.

AHOLKUA: Bizilagunen elkartearen eta igogailuaren mantentze-lanak egiten dituen enpresa bat ez datozenean, arazoak arduratuko den epaitegia etxea dagoen tokiko epaitegia izango da.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Maddi**, atzo 10 urte! Ondo-ondo pasatu ospakizunnez betetako egunak. Maitte zaitugun guztion partez.



Zorionak, **Irati**, 5 urte beteko dituzulako. Familia-koen partetik.



Zorionak, **Paul!** Igandean 4 urte. Muxu handi bat guztion partez.



Zorionak, **Jon**, asteartean 9 urte beteko dituzulako. Patxo potoloak familia-koen eta bereziki Maialenen partez.




Zorionak etxeko mutil handiari! Izugarri maitte zaitugunon partez.



Zorionak, **Mikel**, bihar urtebetel! Familia-koen eta batez ere Maialenen partez.



Zorionak, **Mikel**, gaur 4 urte. 4 muxu potolo, aita, ama eta Josuren partez. Zoragarri pasatuko dugu zure eguna ospatzen.



Zorionak, **Ga-razi**, urriaren 8an, 11 urte. Maitasunez, familia-koen eta bereziki gurasoen eta Iruneren partez. Egun polita pasa!



Zorionak, **aita**. Urriaren 6an berriak gorri-gorri lagako dizkizugu. Egun ona pasatu! Manex eta Xabat.



Zorionak, **Leire**, astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat, familia-koen eta bereziki Ibairen partez.



Zorionak, **poli-tori**, astelehenean 6 urte beteko dituzulako. Muxu erraldoi bat pila-pila maitte zaitugun guztion partetik.




Ongi etorri familia-ri **txikitina**. Musu handi-handi ugari, Jakesen partetik.



Zorionak **Unai**, bigarren urtebetetzean, etxeko guztien, batez ere Sare eta Jareren partez. Mila kilo zorion gure etxeko erregeari.



Zorionak, **Ga-razi**, 15. urtebetetzean, familia-koen partetik. Musu handi bat!




Zorionak, **bikote**, koadrilako eta familia-koen partez. Desiratzen gaude biharko eguna heltzeko. Gaurtik hasiko gara ospatzen.



Zorionak, **June**, zure zazpigarren urtebetetzean. Ondo pasa, etxeko-koen partez. Muxu handi bat.



Bihar izango da zuen egun handia. Oso ondo pasa dezazuela. Muxu asko familia-koen eta lagunuen partez.



Ilusio handiz, elkarrekin ospatuko dugu zuen ezkontza. Familia eta lagunuen partez zorionak, **Agurtzane eta Denis**.



Zorionak **bikote**, familiko guztiko partez, eta bereziki Ihintz eta Noaren partez.

Garbigailua
BOSCH WAE2447PES
379€



Garbigailu lehorgailua
BOSCH **WWH24460EP
625€



Indukzio plaka
SIEMENS EH631BL18E
425€



MILAR BIRE

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

Kalitate hoberena, prezio onenean
Dendako prezioak. Agortu arte eskuragarri.

2 BARIKAKUA

23:00 Mixel Etxekoparren musika kontzertua. Kultur Etxeko Sotoan.

3 ZAPATUA

10:30-14:00 Stock feria eta zozketa. Antolatzailea: Txankakua Merkatarien Elkarte. Lekueder parkean.

16:15 'Bakea erabakia' lelopean Donostian egingo den manifestaziorako (17:00) autobusa, King Kongetik.

17:30 Gipuzkoako bertsolari txapelketa. Bertsolariak: Manu Goiogana, Unai Muñoa, Oihana Iguaran, Iñigo Gorostarzu, Iban Urdangarik eta Manex Mujika. Aurkezlea: Ion Zaldua. Herriko Antzokian.

4 DOMEKIA

10:00-14:00 Irratia plazara ekimena. Irrati ekipo eta antenekin transmisio aukeren erakusketa. Antolatzaileak: Gare irrati klubak UREko Debarroko saila. Irratizaleen topaketa. Kontakturako irrati frekuentzia: 145.475 FM. Udaletxe azpian.

7 EGUAZTENA

8:45-14:00 30+10 mintegia: Hizkuntza kudeaketa enpresan. Antolatzaileak: Makina Erremintaren Institutua, Ahize-AEK eta Laneki. IMHn.

– Mahaingurua: *10 urteren ondoren, zer dugu aurrean?* Eragileen ahota: *Euskara enpresetan, zer uzta jaso dugu orain aurrera egiteko?* Gidaria: Nerea Azurmendi.

Parte-hartzaileak: Hizkuntza Politika Sailburuordetza, Danobat Group, Kontseilua, Laneki, Gaindegia eta IMH (Berrikuntzarako TKgune Fabrikazio sarea).

– *Lanbide Heziketa eta enpresa: euskararen eragina.* Lanbide Heziketako lantokiko prestakuntzan euskararen erabilera sustatzeko bi ekimen: Lanpres eta Gipuzkoako Foru Aldundiko laguntzak.

– Enpresa praktika onak: Aldahitz ikerketaren Eusle metodologian oinarrituta Fagor Arrasatek eta JMak garatutako esperientziak. Kokapen geografikoaren erabilera eta abantailak organizazioentzat. Gislán. Nazioarteko negozioetako komunikazioa aztertzen. Bi kasu praktikoa. Elhu-

yar. Enpresarean foroa: Enpresentzako formazioa. Bai Euskarari ziurtagiriaren Elkarte. Egin salto! hizkuntza portaeran eragiteko interbentzioa. Emun. Langile plus langile eta lana bilatzen ari diren pertsonen euskarazko komunikazio gaitasunak hobetzeko proiektua. Banaiz Bagara elkarte.

18:00 Hitzaldia: *Euskararen egoera Iparraldean: egiak eta susmoak.* Hizlaria: Xan Aire. Kultur Etxeko hitzaldigelan. *Iparraldatik dator haizea* zikloaren baitan.

8 EGUNA

18:00 Hitzaldia: *Erretinosi pigmentarioa, ikusmen murriztua.* Antolatzailea: Begisare elkarte. Kultur Etxean.

19:30 *Beitxu, beitxu!* kantaren aurkezpena. Musika Eskolako auditorioan. Antolatzailea: Elgoibarko Euskarak 365 Egun taldea. Musika: Aitor Nova. Hitzak: Uxue Alberdi. Kantaren grabazio lanetan Elgoibarko hainbat musikaririk hartu dute parte. Azaroaren 28an kanta horren lipdub-a egingo dute.

Nabarmenduak Sagardo Eguna Eibarren

Eta Kitto! euskara elkarteak antolatuta, Sagardo Eguna izango da urriaren 3an, zapatuan, Eibarko Untzaga plazan. 12:00etatik 14:30era eta 19:00etatik aurrera, sagardoa agortu bitartean. 6 euroko txartelaren truke edalontzia, zapia, pintxoak eta txotxa izango dira. Jan-edanez gain, matxaka eta dolarea ipiniko dituzte jendeak prozesua bertatik bertara ezagutzeko eta muztioa edateko. Hainbat sagar mota ere egongo dira ikusgai. Hori guztia txalaparta eta soinu lagunduta.




Zinea (Herriko Antzokian)



'Ma ma'

2, Barixakua, 21:30
3, Zapatua, 22:15
4, Domeka, 19:00
5, Astelehena, 21:30



'Asterix, jainkoen egoitza'

(Euskaraz)
4, Domeka, 16:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K

09:00 - 22:00

- 2, Barixakua BARRENETXEA
- 3, Zapatua IBAÑEZ
- 4, Domeka IBAÑEZ
- 5, Astelehena GARITAONANDIA
- 6, Martitzena ETXEBERRIA
- 7, Eguaztena FERNANDEZ
- 8, Eguena YUDEGO
- 9, Barixakua FERNANDEZ

22:00 - 24:00

Astelehenetik domekara
GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18
943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....943 741 626	Ludoteka.....943 748 883	Gurutze gorria.....943 743 864
Udaltzaingoa.....943 741 394	Gaztelekua.....943 743 228	Eusko tren.....902 543 210
Udalaren arreta bulegoa.....943 741 050	Enplegua-Merkataritza.....943 741 050	Pesa.....902 101 210
Udaleko idazkaritza.....943 743 700	Emugi.....943 747 371	Correos - Posta.....943 741 547
Bake epaitegia.....943 741 630	Kirildegia.....943 744 415	Jokalari anonimoak657 710 156
Gizarte Ongizate saila.....943 741 008	Mintxeta.....943 747 356	Alkoholiko anonimoak.....629 141 874
Hirigintza.....943 744 384	Musika eskola.....943 742 145	
Mankomunitatea.....943 700 799	Udal euskaltegia.....943 742 731	Mendaroko Udala.....943 033 282
Debemen.....943 744 067	AEK euskaltegia.....607 601 423	Liburutegia.....943 033 291
Artekaritza (Hazienda).....943 744 414	KZgunea.....943 023 640	Bake Epaitegia.....943 033 289
Berdintasun saila943 741 050	Jubilatuena biltokia.....943 740 526	Eguneko Zentroa.....943 031 746
Euskara saila.....943 744 366	San Lazaro egoitza.....943 740 296	Mendaro Ikastola.....943 756 141
Kultura saila.....943 742 158	Eguneko zentroa.....943 744 565	Hautzaindegia.....943 755 219
Udal liburutegia.....943 743 525	Kontsumo bulegoa.....943 743 088	Musika Eskola.....943 244 275
Gazteria saila.....943 531 319	Taxi geltokia.....943 740 898	Taxi607 57 57 28
Gazte informazio gunea.....943 257 986	Larrialdiak.....112	Ospitalea.....943 032 800



Segunda Ansola Zigorraga

2015eko irailaren 28an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Albokoei lagundu nahian,
zu beti irribarretsu,
bizitzagatik borrokalari
aritu zara jo ta su.
Orain bakean ta oso lasai
berriz izango zera zu.**

**Sanmigelekin utzi gaituzu.
Fidelekin elkartzera.
Ez dira egon inondik ere
ez kezka ta ez galdera;
maite zaitugu, Segunda,
beti gurekin izango zera.**



Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



Ba ote dago ezer tristeagorik ur-emaririk gabeko iturri bat baino? Inguru guztia lehor eta, askotan, zikin ikustean, ur-zurrustaren hotsik ez nabaritzean... bihotza lurrera jausten zait. Zoritxarrez, aspaldi honetan horrelako asko ikusi ditut Elgoibarren bertan eta ni bizi naizen herrian, Eibarren. Batzuetan, iturri ederrak izandakoak, bat-batean, itxita, urik gabe agertu izan zaizkit begien aurrean; beste batzuetan, "Edateko ur txarra" oharra aldamenean dutela, edota, ur-sareari lotuta, ura edateko kanilari sakatu behar zaiola. Ruper Ordorikak kanta batean dioen moduan, aurrerabidean hainbat gauza bazterrera bota ditugu: kalmazadak, zuhaitzak, etxeak... eta iturriak, erantsiko nuke nik.

Ordea, Iñigok bidalitako Arostegiko iturriaren argazkia ikustean, begiak piztu egin zaizkit. Zein ederra den iturri bat ur-txorro oparoa dariola! Zer-nolako gozamena uraren borborra entzutea eta inguruko giro freskoa arnatea! Nolako plazera iturriaren in-

guruko hortentsiak, larrosak eta bestelako lore eta belarrak ikustea eta usaintzea! Benetan, zoragarria! Gogoia ematen du bertara joan, iturritik zurrutada on bat egin eta eskuak eta aurpegia freskatzeko! Pena dut, baina, oraindik ez dudala iturria ezagutzen!

Nire lankide Idoiak esan didanez, jende asko joaten da bertara, iturria markotzat hartuta argazkiak ateratzera, jaunartze, ezkontza eta abarretarako. Ez naiz batere harritzen: nekez topa daiteke hori baino marko txukun eta politagorik!

Seguru nago denbora asko pasatu baino lehen Sallobente aldera joango naizela Arostegiko iturria ikustera Ruperren beste abesti bat buruan dudala. Nirekin etorri nahi?

*Gerritik heldu eta
goazen ikustera
iturrian zer dagoen
Goazen lehenbailehen,
heldu eta goazen ikustera
iturrian zer dagoen.*

"Zer-nolako gozamena uraren borborra entzutea"

LANGABEZIAN DAUDENENTZAKO IKASTAROA
LANBIDEREN DIRU-LAGUNTZAREKIN

MERKATU-IKERKETA AHOLKULARITZA

(Gaztelaniaz izango da ikastaroa)
Asistencia en la investigación de mercados (Comercio y marketing)

Profesionaltasun agiria - Iraupena 430 ordu - Azaroaren 23tik ekainaren 3ra arte

BALDINTZAK:


- N.A.N edo N.I.E izatea
- Lanbiden izena-emanda egotea
- Gazteleraz idazten eta irakurtzen jakitea
- Gutxieneko titulazioa edukitzea edo froga bat gainditzea

OHARRA

- Debabarreneko biztaleek lehentasuna
- Iraupen luzeko langabetuek lehentasuna

Ikastetxea: MEKA Lanbide eskola - Arregitorre,2 - Elgoibar
Harremanetarako: 943 748 019 - prestakuntza@meka-elgoibar.net

Haizea dator Iparraldetik!



Xan Aire

Hitzaldia:

Euskara Iparraldean: egiak eta susmoak

Urriak 7, asteazkena. 19:00etan
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan

euskaraz hitz egiteko

Tertuliak

euskaraz berba egiteko beste aukera bat

Astean ordubete,
dakizuna praktikatu
eta ez dakizuna
ikasteko.

**Eta gainera, doan! Euskaraz jarduteak ez daukalako preziorik.
Animatu eta eman izena, urriaren 23a baino lehen!
Izena emateko eta informazio gehiago:**

Elgoibarko Izarra
943 741 626

AEK euskaltegia
607 601 423

Udal Euskaltegia
943 74 27 31



elgoibar



Gipuzkoako Foru Aldundia

